

Non egin zenuen seminarioa?
Iruñean.

Baina zu euskalduna zinen.

Goizueta erabat euskalduna zen -eta bada-, eta etxean ez dut behin ere erdaraz hitzak entzun, herrian lagunekin ere ez.

Orduan, noiz piztu zitzaizun euskaltzetasuna?

Seminarioko azken urteetan zerbait irakurtzeko aukera izan nuen. Etxarri Aranatzaren elizan eta euskaraz hitz egiten nuen, jendearekin ere bai. Batzuetan, euskararekin serikusia zuten bilerak egiten genituen. Urte horietan joan nintzen ohartzin. Etxalarra etorri, eta hemen gehiago. Bortzirietan bazen, sortu zen eta Indartuz joan zen euskararen aldeko mugimendua. Hasi ginen euskara haurrei erakusten, AEK sortu zen, gero IKA... Nahiko talde bizia zegoen. Hemen eskolak ematen nituen, baita Lesakan ere.

Seminarioan apaizen arteko harremana ere gaztelaraz zen?

Gaztelaraz. Seminarioan baginen euskaldunak, noski, baina egin, egin, gutxi. Hori kontsideratzen zen la politika nazionalista bezala, eta gerra bukatu berria zen.

Elizan euskaraz aritzeko arazorik izan duzu?

Ez, ez, arazorik ez. Etxarri Aranatzaren, nik euskaraz; lagunak ez zekien hainbeste, eta hark erdaraz egiten zuen. Etxalarren antzez ere gehiago sartu nintzen euskara irakasten eta bilerak egiten. Eskoletan dena erdaraz egiten baitzen, hasi ginen euskara irakasten haurrei eskolako orduetatik kanpo, eskolan ezin baitzen.

Zuen kabuz erabaki zenuten euskaraz aritzea?

Bai, bai, gure gauza izan zen. Elizaren aldetik, gottik, apezpikute-gitik, orain ere nahiko eskas gai horretan. Igandean, apez egin ziren lauzpabost gazte Iruñeko katedralean. Bat Arizkunera joanen ote den, eta ez daki euskaraz. Orduan, hor problema bat dago gaur egun. Apezpikutzak ez du horretan batere kontzientziarik.

Garrantzitsua da meza euskaraz izatea herri euskaldunetan?

Noski. Nik uste dut publiko egiten den gauza guztietan euskaraz agertu behar duela euskalduna den herrian; bestela, lehen ere nahiko erdaraz entzuten eta idazten da. Euskara egiten hasten bazara, denera zabalitzen da: bilertara, jendearekin... Etxalarren elizan egiten den guztia euskaraz egiten da, eta jendearekin ere euskaraz egiten duzu. Ez baduzu egiten, zertarako balio du euskaraz?

Elizak, erakunde gisa, zer harreman du euskararekin?

Elizak segitsen du orain dela 50-70 urte bezala. Gaur egun, apezpikuak euskalduna behar luke izan. Iruñean bi apezpiku dira, bat laguntzalle; gutxienez horrek behar zuen euskalduna. Baina horrek ere hitzak ere ez daki euskaraz. Handik ateratzen dituzten idatzi guztiak erdaraz hutsez dira.

Apai euskaldunak arraro sentitzen zarete?

Bai, arraro. Tripako minak. Azkenean, euskaraz bizi zara ahal duzun neurrian, eta horretarako laguntzen duzu, eta handik dena erdaraz hutsez izateak mina ematen du. Euskara ez dago onartua; beraz, zu ez zaude onartua.

Zerk eraman zintuen seminario-ra?

Txikitan elizara joaten ginen. Goizuetan hiru apez ziren orduan, eta horietako bat Olazaran. Han hasi nintzen solfeo ikasten, 8-9 urterekin. Elizan kantatzen genuen abesbatzan. Harremana genuen apaizekin, eta uste dut horrek izan zela.

Ttiti-ttapa fundazioko lehendakari zara. Gogoan duzu nola sortu zen Ttiti-ttapa aldizkaria?

Beran sortu zen, bi-hiru lagun hasi ziren horretan, eta bi hilabeterik behin ateratzen zuten. Euskal kulturaren aldeko giroa zen. Gero hamaboskari egin zen, beste jende batzuk sartu ziren, eta beste indar bat hartu zuen.

Beharrezkoa izan zen Ttiti-ttapa sortzea?

Normalean, jendeak ez zuen ohiturarik euskaraz irakurtzeko, baina herriko berriak izanik, arruntak, hurbilekoak eta erraz idatzitakoak, hori irakurtzen zuten, eta geroz eta gehiago. Oroitzen naiz 80 urteko batek errana: «Nik ez dut inoiz euskaraz irakurri, eta, orain, nekez ibiltzen naiz, baina Ttiti-ttapa irakurtzen dut».

Euskara beste alor batzuetan normalizatzeko modu bat da?

Bai, bai. Eta hori leitzea normal jotzen du inoiz euskaraz irakurri



Apezpikutzan dena erdaraz hutsez izateak mina ematen du. Euskara ez dago onartua; beraz, zu ez zaude onartua»

«Normalean, jendeak ez zuen ohiturarik euskaraz irakurtzeko; baina herriko berriak izanik, hori irakurtzen zuten»

«Munduan herri batek beste bat menperatu nahi duenean, ekonomikoki menperatzen du, baina baita kulturalki ere»

«Elizak berak, arduradunek, hartu zituzten agintari zibilen antzera bizitzeko eta egiteko manierak»

gabekoak. Gainera, hurbileko herrietan gertatutakoa ere irakurtzen dute, elkar ezagutzen baitute aitz jendek, eta interesa dute.

Txondorra sarria jaso zenuenean Iruñeko udaletxean, politikariek esan zenien euskararen kontra ez agertzeko. Zergatik?

Hala delako. Egun hauetan ere entzun dugu UPNko jendea, orain Nafarroa Suma, erratan ez direla euskararen kontrakoak, baina eglatan ez dute maite. Kalte handia egin dute. Harritzen naiz nola hain garbi eta gogor aritzen diren euskararen kontra.

Nafarroako gizartearen badago talka euskararekin. Nola ikusten duzu egoera hori?

Erraten dute euskaraz ez duela okerrera egin Nafarroan. Euskaraz dakitenak gehiago dira egun, baina, gero, zailtasunik handiena da erabilerara.

Politikariek kasu eginen dizute, edo entzungor?

Ez da erraza. Nahikoa dute, azkenean, menean eduki. Munduan herri batek beste bat menperatu nahi duenean, ekonomikoki menperatzen du, noski, baina baita kulturalki ere.

Nolatan hasi zinen etnografia ikertzen eta lantzen?

Ez nuen ezagutzarik, batere ez. Xeheki erranen dizut: hemen bestak ziren, eta oroitzen naiz egun batez, zerbait egin behar, eta distraitzeko, Goizuetako etxeen izenen liburua gogoan, hasi nintzen hemengo izenak hartzen. Bukatu nuenean, usategiakin hasi nintzen. Piztu zitzaidan halako egarria, edo gosea, ez dakit zer zen. Jakin nahi hori nuen. Hasi gauza bat jakin nahiez, hura jakin, eta gehiago jakin nahi.

Aurten hilarriek buruzkoa kaleratu duzu. Nola hasi zinen gaia lantzen?

Lehenbizi oraingo hilerriko harri batzuk hona [elizaren ondora] ekarri genituen 1966an. Oraingo kanposantuan lanean ari ziren, eta gurutze eta harri guztiak kanpora atera zituzten. Kanpoan gelditu ziren dozena bat ekarri nituen. Gero, 1985ean, biltegian lan batzuk egiten, ikusi genuen harri borobil baten zatia ageri zela: hilarri bat zen. 69 ziren orotara, eta atera genituen. Harri gisa erabili zituzten, paretaren zimendua betetzeko. Beraz, horiek moldatu eta garbitu, eta kanpoan paratu genituen jendeak ikusteko. Ikusi nuen Madrilgo gobernuak 1845 inguruan agindu zuela hor [Elizaren ondoan] ez lurperatzeko, eta kanposantu berria egiteko. Or-

duan, hilarri asko pareta egiteko erabili ziren.

Zer garrantzi dute hilarriek?

Hori ere gure kulturaren adierazgarri da. Azkenean, gure bizitzako eta heriotzako ohiturak sartzen dira kulturaren barruan. Sinboloak daude harrietan, eta horiek ezagutzea historia da, gure aitzinekoen kulturaren adierazpenak ezagutzea.

Zein egoeran dago Eliza, egun?

Erakunde, gaizki. Elizak lehen betetzen ziren bezala orain hustu egin dira. Zergatik? Zientzian aitzinatzeak egin dira. Kulturak, hizkuntzak eta erlijioak aldatzen joaten dira. Orain dela 2.000 urte kristautasuna sortu zenean, Jesus deitutako Nazaretoko gizon hura hasi zen herriz herri adierazten berri on bat, eta hark segitzalle batzuk izan zituen. Baina hori aldatu da. Jendea errespetatzea, maiztatzea, herriak ere errespetatzea, hori alde batera utzi, eta Elizak berak, arduradunek, hartu zuten agintari zibilen antzera bizitzeko eta egiteko manierak. Gu ilkasle ginela, gotzainari obeditzeko esaten ziguten. Horientzat, hori da inportanteena.

Zer aldatu behar da?

Munduan bizi gara hainbat herri, hainbat jende, eta kultura diferente. Jende guztiak ongi bizitzea garrantzitsua da, eta, horretarako, elkar errespetatzea eta ondasunak behar diren bezala banatzea. Munduan dagoen gosea ezin da onartu. Elizak beharko luke gauza horietan aritu, batez ere. Zarpitzen badira herriak, hor aritu behar du. Ez bakarrik erakusten, egiten, horretan jokatu behar du.

Distantzia handia dago apaizen eta agintarien artean?

Bai, bai. Hori da. IV. mendean alta santua hasi zen enperadore bat biltzeko bezala, eta gotzainak haren meneko, baina hark ere haren menean apaizak, eta apaizek besteak. Inperio zibil bat biltzeko bezala antolatzen. Horrek aldatu behar du. Hori ez da Jesusek erakutsi zuen planteamendua.

«Elizak, lehen betetzen ziren bezala, orain hustu egin dira»

Pello Apezetxea • Apaiza

Etxalarko apaiza da duela 53 urte. Euskaraz eta euskararen alde aritzen da beti, eta salatu du Elizak ez duela aintzat hartzen euskara. Kritiko agertu da Elizako goi kargudunen jarrera batzuekin.

Iker Tubia Etxalar

Hilarriak dituzte Etxalarko elizaren inguruetan (Nafarroa). Han ez da inor ehortzirik XIX. mendetik, baina harriak berreskuratu zituen hango apaizak, Pello Apezetxeak (Goizueta, Nafarroa, 1932). Berriki argitaratu du horri buruzko liburua. Etnografia eta etnologia lanak publikatu ditu, euskaltzalea da, Ttipi-ttapa fundazioko lehendakaria eta ohorezko euskaltzaina. Hilarrien inguruko zertzelada batzuk emanda, Erretorenean izan da solasaldia: euskaraz, herriaz eta Elizaz.


Goizuetan sortu, baina Etxalarren 53 urtez. Nongoa zara?

Erran beharko bietakoa naizela. 11 urtetan seminariora joan nintzen. Pentsa, hamabi urte seminarioan, gero Etxarri Aranatz

hamar urte, eta gero hemen. Beraz, ia-ia dena Goizuetatik kanpo. **Harremana duzu sorterriarekin?** Bai, bai. Oraindik senide bat han bizi da, eta hamabost bat egunetik behin joaten gara elkarrekin, bazkaltzeko eta hitz egiteko.

Euskaltzaletasuna seminarioan sortu zitzaizun?

Seminarioan ez. 1943. urtea zen, gerra ondorengo urteak, eta horiek oso txarrak izan ziren euskararentzat, orduko agintariek debekatu eta zigortu ere egiten zutelako. Seminarioan dena erdaraz zen. Irakasle bat genuen Erratzukoa [Nafarroa], eta hark ematen zituen batzuetan toponimiari buruzko gauzak, euskararekin zerkusia zuen zerbait; baina, urtean hamabost bat aldiz? Gero, tarte-tarteka euskal dantzak egiten ziren, baina bestela ez.



Zure betiko irratia!

SEGURA
IRRATIA

89.2 FM - 103.8 FM (TOLOSALDEA)
www.segurairratia.eus

943 901 061 - 943 901 347

JUAN CARLOS RUIZ / F